

Puntuak, guztira:

Lehen Hezkuntzako Ebaluazioa 2007

Irakurriaren Ulermena 1

Lehen Hezkuntzako bigarren kurtsoa

Data: _____

Izen-deiturak: _____

Ikastetxea: _____

Herria: _____

Ikuskapen Teknikorako Zerbitzua

MARITXU



Maritxu laurogei urteko amonaxo bat da. Eliza ondoko etxe zahar batean bizi da bakar-bakarrik. Etxe zahar hori ez da berea, Joxe tripandiarena baizik. Joxe aberatsa eta bihotz gogorra da.

Atzo esan zion Joxek Maritxuri:

—Bueno, Maritxu, etxe honetan taberna bat jarri behar dut, beste etxeren bat bilatu beharko duzu bizitzeko.

—Baina, baina, Joxe jauna! Ez horrelakorik egin. Xentimorik ere ez daukat eta, nola hasiko naiz orain etxe bila? —erantzun zion Maritxuk.



Gaur goizean kanpin-denda bat ikusi dugu herriko parkearen erdi-erdian, eta kanpin-dendaren barruan Maritxu amonaxoa manta baten azpian negarrez.

—Zer gertatzen zaizu amonaxo? —galdetu diogu.

—Ni bizi nintzen etxea Joxe aberatsarena da. Taberna bat jarri behar du orain han. Eta ni kalera bota nau, trapu zahar baten antzera. Baina zuek txikiak zarete eta ezin didazue lagundu. Zoazte ikastolara —esan digu amonaxoak malkoak lehortuz.

—Txikiak gara, baina prest gaude zuri laguntzeko. Ikusiko duzu! —esan diogu guk.



Ikastolara joan eta irakasleari kontatu diogu; berari ez zaio ongi iruditu Joxek egin duena. Ikastolako atea itxi eta alkatearengana joan gara denok.



Alkatea harriturik geratu da hainbeste haur bere aurrean ikustean. Maritxu amonatxoari egin diotena kontatu diogu.

—Joxe jauna? –deitu du alkateak telefonoz. Bai, zatoz lehenbailehen udaletxera.

Joxek udaletxe ondoan aparkatu du bere auto dotorea. Ordubete egon da alkatearekin hizketan. Udaletxetik irtetean amorrusuz begiratu digu.



Gero alkateak deitu egin gaitu:

—Zer, zer? Zer esan dizu? –galdetu diogu alkateari.

—Ba, konpondu da arazoa. Paper hauxe sinarazi diot Joxeri:



*Maritxuk eskubide osoa
du nire etxean bizitzeko.*

Joxe

Orduan txaloka hasi gara denok.

Gero Maritxuri lagundu diogu bere etxe zaharrera joaten.

(Zipristin 2-moldatua)

MARITXU – ARIKETAK

1. Aukera ezazu beste izenburu bat ipuinarentzat.

- Joxepa
- Sorginen herria
- Bihotz oneko umeak
- Joxe eskuzabala

2. Non gertatzen dira ipuinaren pasarteak?

- Mendan
- Elizan
- Hirian
- Herri batean

3. Zergatik idazten dira Maritxu eta Joxe hizki larriz (maiuskulaz)? (Esaldi osoa idatzi)

4. Zergatik dago marratxo bat esaldi batzuen aurrean?

5. Ordena itzazu ipuinaren pasarte hauek denboraren arabera (1, 2, 3, 4):

- Alkateak Joxe deitu zuen
- Maritxuk parkean kanpin-denda jarri zuen
- Maritxu lehen bizi zen etxera itzuli zen
- Maritxu eliza ondoko etxe zahar batean bizi zen

6. Zer ireki nahi zuen Joxek?

- Ludoteka
- Taberna
- Eliza
- Udaletxea

7. Ongi iruditu zaio irakasleari Joxek egin duena? (Esaldi osoa idatzi)

8. Esan egia edo gezurra diren esaldi hauek (E = egia, G = gezurra):

- Maritxu hirurogei urteko amonaxo bat da.
- Alkateak Maritxu deitu zuen.
- Txikiak izan arren, umeak amona laguntzeko prest zeuden.
- Maritxu bere familiarekin bizi zen.

9. Nola zegoen Maritxu amonatzoa mantaren azpian?

- Barrez
- Haserre
- Loguraz
- Negarrez

10. Zer esan nahi du Maritxuk «xentimorik ere ez daukat eta» esaten duenean?

- Bakarrik billete handiak ditut
- Ez dut dirurik etxean
- Oso pobrea naiz
- Ez dut dirurik tabernara joateko

**11. Zergatik joan ziren alkatearengana irakaslea eta umeak Maritxu-
ren arazoa konpontzeko? (Esaldi osoa idatzi)**

12. Joxe neska-mutilekin haserretu egin zen. Bilatu testuan hori adierazten digun esaldi bat eta kopiatu.

13. Zer adierazi nahi zuten irakasleak eta umeeak beren txaloekin? (Idatzi pentsatzen duzuna)

14. Non aurkitu dezakezu istorio hau?

- Egunkarian
- Hiztegi batean
- Ipuin-liburu batean
- Olerki-liburu batean

Puntuak, guztira:

Lehen Hezkuntzako Ebaluazioa 2007

Irakurriaren Ulermena 2

Lehen Hezkuntzako bigarren kurtsoa

Data: _____

Izen-deiturak: _____

Ikastetxea: _____


Herria: _____

Ikuskapen Teknikorako Zerbitzua

URTXINTXA

Urtxintxa ornoduna eta ugaztuna da. Karraskaria da eta, beraz, arratoi eta saguen familiakoa da.


Gutxi gorabehera 45 cm luze da (gorputzak 25 cm eta isatsak 20 cm ditu), ilearen kolorea desberdina da ingurunearen arabera (hemen, gure eskualdean, gorrixkak dira, gaztaina kolorekoak), belarriek ile mordoak dute puntan eta azazkal zorrotzak ditu zuhaitzetan gora eta behera ibiltzeko.



Urtxintxaren jauziak

Oso trebea da, zuhaitz batetik bestera pasatzeko airean jauzi handiak egiten ditu.

Intxaurreak, ezkurak, pinaburuak, onddo jangarriak, intsektuak eta hegazti-arrautzak jaten ditu. Negurako elikagai ugari biltzen du txoko ezkutuetan, batez ere intxaurreak.



Urtxintxaren habia zuhaitz barnealdean



Urtxintxaren habia zuhaitz adarretan

Normalean urtxintxak zuhaitzen barnealdean egiten du habia, baina batzuetan abartxoekin, goroldioarekin eta belarrarekin adarretan egiten du. Urtxintxa emea 2-3 aldiz erditzen* da urtean eta aldi bakoitzean 3, 4, 5 edo 6 kume jaiotzen dira.

Urtxintxaren etsairik* handienak lepahoria eta hegazti harrapariak dira.

Hiztegia

Erditu: umeak egin

Etsai: aurkari

*(Gazteen Entziklopedia-
moldatua eta osatua)*

URTXINTXA

15. Zein da testu honen helburua edo asmoa?

- Baso bat erakustea.
- Txorien habiak erakustea.
- Urtxintxa hegazti harrapariekin konparatzea.
- Urtxintxari buruzko informazioa ematea.

16. Zer du luzeago urtxintxak, gorputza ala isatsa? Zergatik?

17. Zer du belarri puntetan?

- Ezkatak
- Arantzak
- Ile mordoak
- Lumak

18. Zertarako ditu azazkal zorrotzak? (Esaldi osoa idatzi).

19. Zein izenburu jarriko zenioke testuko zati honi?

Intxaurrak, ezkurak, pinaburuak, onddo jangarriak, intsektuak eta hegazti-arrautzak jaten ditu. Negurako elikagai ugari biltzen du txoko ezkutuetan, batez ere intxaurrak.



20. Irakurri ondorengo esaldiak eta esan EGIA edo GEZURRA diren (E = egia, G = gezurra):

- Urtxintxa ornoduna da.
- Jauzi txikiak egiten ditu.
- Negurako elikagaiak biltzen ditu.
- Arrautzak jartzen ditu.

21. Zer esan nahi du «jangarri» hitzak?

- Arriskutsua dela hori jatea.
- Jateko ez dela.
- Jaten ahal dela.
- Oso goxoa dela.

22. Marrazkietan ikusten den moduan urtxintxak bi habia mota egiten ditu. Kopiatu testutik hori adierazten duen esaldia.



23. Urtxintxa amak kumeak egitean, zenbat izaten ditu?

- 1-2 izaten ditu.
- 7 baino gehiago izaten ditu.
- 3-4-5-6 kume izaten ditu.
- Dozena bat izaten du.

**24. Zein animalia dira urtxintxaren etsairik handienak?
(Esaldi osoa idatzi).**

25. Zein liburutatik hartu da testu hau?

- Ipuin liburu batetik.
- Entziklopedia batetik.
- Olerki liburu batetik.
- Errezeta liburu batetik.


26. Hona hemen urtxintzarekin zerikusia duten hitzak:

intxaurreak
isatsa
gorrixka
jauzi egin

trebea
habia egin
belarriak
onddo jangarriak

azazkalak
elikagaiak bildu
hegazti-arrautzak

Sar itzazu hitz horiek lauki bakoitzean



Puntuak, guztira:

Lehen Hezkuntzako Ebaluazioa 2007

Problemen ebaluazioa

Lehen Hezkuntzako bigarren kurtsoa

Data: _____

Izen-deiturak: _____

Ikastetxea: _____

Herria: _____

Ikuskapen Teknikorako Zerbitzua



Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

1. Jonek 25 kromo ditu eta Mikelek 37 kromo ditu. Guztira, bien artean zenbat kromo dituzte?



Pentsatu eta erantzun:

Idatzi zenbat kromo dituen

Jonek:

Mikelek:

Ebatzi problema

2. Koldok 20 gaztaina bildu ditu eta Garbiñek Koldok hartu duenaren bikoitza bildu du. Bien artean, zenbat gaztaina bildu dituzte?

Pentsatu eta erantzun:

Nork bildu du gaztaina gehien?

Ebatzi problema

3. Begi aurrean duzu bidaien eta ordutegien taula. Aztertu eta erantzun:

Atera		Iritsi	
Iruña	12:30	Zaragoza	14:30
Iruña	7:00	Madril	10:30
Zaragoza	6:00	Bartzelona	11:00
Madril	10:00	Iruña	13:30

1. Nondik ateratzen da Madrila goizeko 10:30ean iristen den tren?

2. Nora doa goizeko seietan ateratzen den tren?



3. Zenbat denbora behar da Iruñetik Zaragozara joateko?

4. Iruñetik Madrila joan nahi izanez gero, zer ordutan hartuko zenuke tren?

5. Iruñetik aterata, nora joan zaitezke?

4. Bi astetan 46 orrialdeko liburu bat irakurri dut. Aste honetan 21 orrialde irakurri ditut. Aurreko astean zenbat orrialde irakurri nituen?

Ebatzi problema



5. Xabierrek 56 ipuin ditu. Gorkak 25 ditu.

Xabierrez eta Gorkaz dakigunarekin, idatzi bi galdera.

6. Aitorrek 67 euro zituen itsulapikoan. Bere urtebetetzean osaba-izebek dirua eman zioten eta orain 93 euro ditu. Bere urtebetetzean, zenbat euro sartu zituen itsulapikoan?



Pentsatu eta erantzun:

Zergatik ditu Aitorrek orain 93 euro itsulapikoan eta lehenago 67 euro zituen?

Ebatzi problema

Puntuak, guztira:

Lehen Hezkuntzako Ebaluazioa 2007

Testu Idatzien Ekoizpena

Lehen Hezkuntzako bigarren kurtsoa

Data: _____

Izen-deiturak: _____

Ikastetxea: _____

Herria: _____

Ikuskapen Teknikorako Zerbitzua



Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

Ariketaren deskribapena

Joan den astean Animaliak Babesteko Elkarteko pertsona bat etorri zitzaigun klasera. Zera kontatu zigun: kaleko txakurrak nola zaintzen dituen eta baita abandonaturik utzitako txakur bat adopzioan nola hartu eta zaindu ere.



Idatz ezazu kaleko txakur bat protagonista izanen duen ipuin bat.
Gero, ipuinak bildu eta etorri zen pertsonari emanen dizkiogu. Horrela, beste ikastetxe batzuetara joaten denean beste haur batzuei erakutsiko dizkie eta beren maskotak zaintzera animatuko ditu.

Idazten hasi aunetik, ideiak idatzi

Idatz itzazu hitz batzuk zure ideiak ordenatzeko:

- Erabaki ezazu nola deitzen den idatzi behar duzun istorioaren protagonista, non bizi den, nolakoa den, zer duen gustuko, nola bizi den...

- Idatz ezazu zer egin duen, zer gertatzen zaion: ihes egin ote duen, abandonaturik utzi ote duten, arazorik ote duen, laguntzarik behar ote duen...

- Pentsa ezazu nola konpon daitekeen istorio hori.

Orain testua idatziko dut

Pentsatu duzu honezkero nolakoa izanen den zure ipuina. Orain idatzi egin behar duzu.

Egin ezazu poliki eta letra argiz, irakurriko duten hurrek uler dezaten.

Esaldiak lotzeko horrelako hitzak erabil ditzakezu: «eta», «orduan», «gero», «beranduago», «ondoren», «bat-batean»...

Izan gogoan paragrafoak bereizteko *puntu eta beste lerroa* egin beharko duzula.

Baietz oso polita egin!

A series of 20 horizontal lines for writing.

Oraindik ez dut bukatu

Idatzi duzu honezkero zure istorioa. Irakasleari eman aurretik, irakur ezazu berriz eta erantzun galdera hauei, BAI edo EZ biribilduz. Akatsen bat egin duzula ohartzen bazara, zuzen ezazu.

- Idatzi duzun ipuina, gustatuko al zaie beste haurrei?

BAI EZ

- Zure ustez, ulertuko al dute zure letra?

BAI EZ

- Zure ipuinak zati desberdinak al ditu?

BAI EZ

- «Gero», «beranduago», «ondoren» eta horrelako hitzak erabili al dituzu?

BAI EZ

- Puntua jarri al duzu esaldi bakoitzaren ondoren eta paragrafoa bukatzean?

BAI EZ

- Letra larriz (maiuskulaz) idatzi al duzu puntuaren ondotik?

BAI EZ

- Gustatzen al zaizu nola gelditu den zure ipuina?

BAI EZ

